

## **Gazte politika integrala sustatzeko bitarteko neurriak:**

1.- Kultura Sailak, Gazteria Zuzendaritzaren bitartez, gazte gaien inguruko ekintza positiboen koordinazio eta jarraipen lanak burutuko ditu, gaiaren eskumena duten organoek ekintza positibo horiek antolatzeke eta kudeatzeko duten ahala errespetatuta.

2.- Gazteen Euskal Legea prestatu bitartean, eta behin betiko onartu arte, Kultura Sailak, ekitaldi bakoitzean, ekitaldi horretan burutuko diren ekintzen programazioa aurkeztuko dio Jaurlaritzaren kontseiluan, honek onar dezan.

Ekintzen programazioan, jardueren zerrenda ez ezik, horiek burutzeaz arduratuko diren organoak, aurreikusitako finantziazioa – aurrekontu-bitartekoak eta aurrekontuak egiteko dagozkion irizpideak errespetatuta – lortu beharreko helburuak, hartzaileak eta ekintza ebaluatzeke erabiliko diren adierazleak zehaztuko dira.

Ekintzak burutzeko ardura izango duten organoak Eusko Jaurlaritzako Sailak izango direnez gero, finantziazioan dagozkion programa eta aurrekontu-sailen identifikazioa adierazi beharko da, bai eta aurrekontu-bitartekoak eta hartutako helburuak ere.

3.- Ekitaldi bakoitza amaitutakoan, Kultura Sailak ekitaldi horri dagokion jarraipen txostena aurkeztuko dio Jaurlaritzaren Kontseiluari, eta txosten horretan enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politiken eskumena duten sailek burututako ekintza positiboen arteko koordinazio maila aztertuko da. Aipatutako gaien eskumena duten sailek burututako ekintzak adieraziko dira txostenean.

Jaurlaritzaren Kontseiluari igorriko zaion txostenean enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politiken eta gazte politikaren arteko osagarritasun mailaren balorazioa erantsiko da.

4.- Gazteria Zuzendaritzak Erabaki honetan egin diren aurreikuspenak betetzeko xedearekin, behar den informazioa bildu eta aztertzeke eginkizunari helduko dio. Horretarako, aipaturiko gaien eskumena duten sailek kasu bakoitzean behar den laguntza emango diote Gazteria Zuzendaritzari.

5.- Kultura Sailak, bere aldetik, gazte politika integrala bultzatu eta koordinatzeko mekanismo hauei eutsi beharko die:

- Atari gaztea eta Leihatila bakarra (Gazteaukera).
- Gazte politikarekin erlazionaturako planekiko koordinazioa.
- Mahai sektorialak.
- Udal plan estrategikoak prestatu eta garatzeko finantziazioa eta gazte ekipamenduen sarea sendotzea.

**Gobernu kontseiluan onartuta: 2006-12-26an**